# Xedapen Orokorrak

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

### Zk-4023

164/2002 DEKRETUA, uztailaren 2koa, Eibarko Egoitza-Zentroa sortu eta Eibarko Hezkuntza-Esparruko administrazio-egitura eta -antolaketa zehazten duena.

Irailaren 15eko 299/1987 Dekretua, Irakaskuntza Integratuetako Eibarko Ikastegia berregituratu zuena, Eibarko Hezkuntza-Esparruaren sorreraren abiapuntua izan zen eta horren administrazio-egitura eta -antolaketa zehaztu zituen.

Adierazitako Dekretua argitaratu zenetik, zenbait gertaera dela medio, Hezkuntza-Esparruaren errealitatea nabarmenki aldatu da.

Erdi Mailako Irakaskuntza eta HHIko (Helduen Hezkuntza Iraunkorra) Ikastegi Integratua dagoeneko ez da ikastegi integratua eta Erdi Mailako Irakaskuntzako ikastetxe arrunta bilakatu da, Helduen Hezkuntza Iraunkorreko irakaskuntzetatik bereizi baita; azken horiek martxoaren 15eko 122/1994 Dekretuak (94-04-21eko EHAA) sortutako «Eibar» Helduen Hezkuntza Iraunkorreko Ikastetxera pasatu dira.

Horren ondoren, urtarrilaren 30eko 26/1996 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoak berrantolatu zituenak, adierazitako Erdi Mailako Irakaskuntzako Ikastegi Integratua, Ez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Institutua bilakatu zuen. 1998ko ekainaren 26an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Agindua argitaratu zenetik (98-07-29, EHAA) Institutu horrek «Uni Eibar-Ermua BHI» izena hartu zuen; 1998ko azaroaren 9an Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Agindu berriak (98-12-11ko EHAA) aurreko Agindua zuzendu zuen.

Urriaren 4ko 379/1994 Dekretuak bestalde (94-10-20ko EHAA), Industri Ingeniaritza Teknikoko Unibertsitate Eskola, ordu arte Eibarko Hezkuntza-Esparrukoa zena, Euskal Herriko Unibertsitatera pasatu zuen.

Adierazitako aldaketa guztiek Eibarko Hezkuntza-Esparruko egungo errealitatera eraldaketa nabarmena ekarri dute, eta horren ondorioz irailaren 15eko 299/1987 Dekretuan agertzen diren xedapen asko ez dira erabiltzen; horregatik, egokia da adierazitako Dekretua indargabetzea eta, egungo egoera aintzat hartuta,

# Disposiciones Generales

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

### N°-4023

DECRETO 164/2002, de 2 de julio, por el que se crea el Centro Residencial de Eibar y se determina la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar.

El Decreto 299/1987, de 15 de septiembre, por el que se reestructura el Centro de Enseñanzas Integradas de Eibar, dio origen a la constitución del Complejo Educativo de Eibar y determinó su estructura y organización administrativa.

Desde la publicación del citado Decreto se han producido varias circunstancias que han modificado, de modo sustancial, la realidad existente en el citado Complejo Educativo.

El Centro Integrado de Enseñanzas Medias y EPA deja de ser un Centro Integrado y se transforma en un centro ordinario de Enseñanzas Medias al separarse del mismo las enseñanzas de Educación Permanente de Adultos, que pasan a ser atendidas por el Centro de Educación Permanente de Adultos «Eibar», creado por el Decreto 122/1994, de 15 de marzo, (BOPV de 21-04-94).

Posteriormente el Decreto 26/1996, de 30 de enero, de reordenación de los centros docentes públicos de enseñanza no universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco, transforma al Centro Integrado de Enseñanzas Medias en un Instituto de Enseñanza Secundaria No Obligatoria. Este Instituto pasa a denominarse IES «Uni Eibar-Ermua» a partir de la publicación de la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación de 26 de junio de 1998, (BOPV de 29-07-98), corregida por la Orden del Consejero de Educación, Universidades e Investigación de 9 de noviembre de 1998, (BOPV de 11-12-98).

Por otra parte, el Decreto 379/1994, de 4 de octubre, (BOPV de 20-10-94), integra la Escuela Universitaria de Ingeniería Técnica Industrial perteneciente, hasta ese momento, al Complejo Educativo de Eibar, en la Universidad del País Vasco.

Todos los cambios mencionados han supuesto una transformación muy importante de la realidad existente en la actualidad en el Complejo Educativo de Eibar, y han caido en desuso muchas de las disposiciones contenidas en el Decreto 299/1987, de 15 de septiembre, por lo que resulta procedente la derogación de dicho

Eibarko Hezkuntza-Esparruaren administrazio-egitura eta -antolaketa arautzeko testu berria argitaratzea.

Horrez gain, egungo Egoitza-Zentroa autonomo egitea egokia da; horrela, Hezkuntza-Esparruan integraturik jarraitzen badu ere, izaera, egitura eta antolaketa propioak hartuko ditu, eta hezkuntza zein egoitzako zerbitzuak emateko etorkizuneko posibilitate berriei eutsi ahal izango die, eta irakaskuntza arautuan zein berariazko irakaskuntza ez arautuan diharduten ikasleen, edo Egoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko eskaera egiten duten ezaugarri bereziko taldeen eskaerei egokiro erantzun ahal izango die.

Xedea, edonola ere, dauden baliabideak ahalik eta hobekien aprobetxatzea erraztuko duen antolamenduko egitura bat sortzea da eta, ikasleek bizitokiaren aldetik dituzten premiak asetzearekin batera, ikasleei prestakuntza sendoa eta kalitatezko irakaskuntza ematea —lanaren zein gizakiaren ikuspuntutik—.

Horren indarrez, Euskadiko Eskola Kontseiluaren iritzia entzun ostean, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak proposatu ondoren, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2002ko uztailaren 2an egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

LEHENENGO KAPITULUA
XEDAPEN OROKORRA

*1. artikulua.*– Eibarko Egoitza-Zentroa sortzea eta Eibarko Hezkuntza-Esparruko administrazio-egitura eta -antolaketa arautzea da Dekretu honen xedea.

*2. artikulua.*– Eibarko Egoitza-Zentroa sortzen da, zentro hori publikoa da eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpean dago. Horren helbidea Eibarko Otaola hiribidea 29 da (Gipuzkoa), eta horren Kodea 013173 da.

*3. artikulua.*– 1.– Honaho hauek osatzen dute Eibarko Hezkuntza-Esparrua: bere gobernu orokorreko organoek, artikulu honen 2. atalean agertzen diren zentroek eta horien guztien instalakuntza eta bulego komunek.

2.– Eibarko Hezkuntza-Esparrua osatzen duten zentroak, honakoak dira:

a) «Uni Eibar-Ermua» Bigarren Hezkuntzako Institutua.

b) Eibarko Egoitza-Zentroa.

c) Indarrean dagoen legeriarekin bat etorriz, geroan unibertsitateaz kanpo sor daitezkeen ikastetxeak.

Decreto y la publicación de una nueva norma que sirva para regular la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar, de acuerdo con las circunstancias actualmente existentes.

Por otra parte, procede crear como autónomo el actual Centro Residencial para, manteniendo su integración en el Complejo Educativo, dotarle de un carácter, estructura y organización propia, que le permita hacer frente a las nuevas y futuras posibilidades en la prestación de sus servicios educativos y residenciales, atendiendo de un modo adecuado la demanda existente, tanto de los/as alumnos/as que siguen enseñanzas regladas como de aquellos/as que siguen enseñanzas específicas no regladas y de otros grupos de características especiales que también solicitan la utilización de los servicios que les ofrece la Residencia.

El objetivo, en todo caso, es crear una estructura organizativa que permita aprovechar al máximo los recursos existentes y conseguir una enseñanza de calidad y una sólida formación, tanto profesional como humana, del alumnado, satisfaciendo asimismo sus necesidades de alojamiento.

En su virtud, oído el Consejo Escolar de Euskadi, a propuesta de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación, previa deliberación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 2 de julio de 2002,

DISPONGO:

CAPÍTULO PRIMERO
DISPOSICIONES GENERALES.

*Artículo 1.*– Es objeto del presente Decreto la creación del Centro Residencial de Eibar y la regulación de la estructura y organización administrativa del Complejo Educativo de Eibar.

*Artículo 2.*– Se crea el Centro Residencial de Eibar, centro público dependiente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación, con domicilio en la Avenida Otaola, número 29, de Eibar (Gipuzkoa) y Código de Centro : 013173.

*Artículo 3.*– 1.– El Complejo Educativo de Eibar está constituido por los órganos de gobierno general del mismo, por los Centros especificados en el apartado 2 de este artículo, y por las instalaciones y dependencias comunes a los mismos.

2- Los Centros que componen el Complejo Educativo de Eibar son los siguientes:

a) El Instituto de Enseñanza Secundaria «Uni Eibar-Ermua».

b) El Centro Residencial de Eibar.

c) Los centros docentes no universitarios que puedan establecerse en el futuro de acuerdo con la legislación vigente.

3.– Eibarko Hezkuntza-Esparrua organikoki Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpean izango da.

*4. artikulua.–* Eibarko Hezkuntza-Esparruaren oinarrizko helburuak honakoak dira:

a) Esparruaren ikastetxeetako mailetarako ezarritako irakaskuntza egokiak irakastea.

b) Ikasleei ostatu-zerbitzua ematea eta, prestakuntzan ahalik eta etekinik handiena atera dezaten, hezkuntzako jardunaren garapenak dakartzan eskakizunetarako egokitzen diren zerbitzu gehigarriak eskaintzea.

*5. artikulua.–* 1.– «Uni Eibar-Ermua» Bigarren Hezkuntzako Institutuan ikasleak onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Mailako Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasleak onartzeko arau orokorraren arabera egingo da.

2.– Eibarko Hezkuntza-Esparruko Egoitza-Zentrora ikasleak onartzea arautzeko, urtero Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak agindua emango du, eta agindu horretan, dauden plazetara sartzeko berariazko deialdia egingo da. Agindu hori garatzearren eman daitezkeen xedapenek ere onartze prozesua arautuko dute.

3.– Eibarko Hezkuntza-Esparruan euren egoitza etorkizunean jar dezaketen unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetara ikasleak sartzea onesteko, ikastetxe horiek ikasleak onartzeko izango dituzten arau orokorrak erabiliko dira.

*6. artikulua.–* Eibarko Hezkuntza-Esparruak aurrekontu-esleipenak eta irakaskuntzaz kanpoko langileak izango ditu esparruko zerbitzu komunetaz arduratzeko.

*7. artikulua.–* Dekretu hau indarrean jartzen denean Eibarko Hezkuntza-Esparruan behin betiko destinoa duten irakaskuntzaz kanpoko langileek, euren atxikipen eta lan-egoerari eutsiko diete.

## BIGARREN KAPITULUA. EIBARKO HEZKUNTZA-ESPARRUKO GOBERNU OROKORREKO ORGANOEI BURUZKOA.

*8. artikulua.–* Eibarko Hezkuntza-Esparruko gobernu orokorreko organoak kudeatzailea eta Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Ataleko burua dira.

*9. artikulua.–* Eibarko Hezkuntza-Esparruko gobernu orokorra kudeatzaileari dagokio.

*10. artikulua.–* Kudeatzailetzako Kontseiluak Eibarko Hezkuntza-Esparruko kudeatzailearen aholkulari lanak beteko ditu. «Uni Eibar-Ermua» Bigarren Hezkuntzako Institutuko zuzendariak, Eibarko Hezkuntza-

3.– El Complejo Educativo de Eibar dependerá orgánicamente del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

*Artículo 4.–* Son objetivos básicos del Complejo Educativo de Eibar:

a) Impartir las enseñanzas establecidas, para los niveles que correspondan, en los centros pertenecientes al Complejo.

b) Proveer un servicio de alojamiento al alumnado, que le permita optimizar su rendimiento formativo con unos servicios adicionales que se acomoden a las exigencias de la evolución de la actividad educativa.

*Artículo 5.–* 1.– La admisión de alumnos/as en el Instituto de Enseñanza Secundaria «Uni Eibar-Ermua» se regirá por la normativa general reguladora de la admisión de alumnos/as en centros públicos de Educación Secundaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– La admisión de alumnos/as en el Centro Residencial del Complejo Educativo de Eibar estará regulada por una Orden del Consejero/a de Educación, Universidades e Investigación, que anualmente determinará las condiciones de la convocatoria específica para acceder a las plazas existentes, así como por las disposiciones reglamentarias que se pudieran dictar en desarrollo de la citada Orden.

3.– La admisión de alumnos/as en los centros docentes no universitarios que puedan establecerse en el futuro en el Complejo Educativo de Eibar se regirá por la normativa general de admisión de alumnos/as que corresponda a dichos centros.

*Artículo 6.–* El Complejo Educativo de Eibar dispondrá de asignaciones presupuestarias y de personal no docente para los servicios comunes del Complejo.

*Artículo 7.–* El personal no docente que, a la fecha de entrada en vigor de este Decreto, tuviera destino definitivo en el Complejo Educativo de Eibar, mantendrá su adscripción y situación laboral sin variación alguna.

## CAPÍTULO SEGUNDO DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO GENERAL DEL COMPLEJO EDUCATIVO DE EIBAR.

*Artículo 8.–* Los órganos de gobierno general del Complejo Educativo de Eibar son el Gerente y el/la Jefe/a de la Unidad de Gestión de Administración y Servicios.

*Artículo 9.–* El gobierno general del Complejo Educativo de Eibar corresponde al Gerente.

*Artículo 10.–* El Gerente del Complejo Educativo de Eibar estará asesorado por el Consejo de Gerencia, que estará formado por el Director/a del IES «Uni Eibar-Ermua», el Director/a del Centro Residencial del

Esparruko Egoitza-Zentroko zuzendariak eta Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Ataleko buruak aipatu kontseilua osatuko dute.

*11. artikulua.–* Kudeatzaileari honako hauek dagozkio:

a) Hezkuntza-Esparrua ofizialki ordezkatzea.

b) Zerbitzuak eta instalakuntzak koordinatzea eta zuzentzea eta Hezkuntza-Esparruko espazio zein eraikin komunetako erabilera koordinatzea eta zuzentzea, betiere Kudeatzailetzako Kontseiluaren aholkuaz.

c) Espazio komunen erabilera egokia lortzeko xedez, Hezkuntza-Esparruaren prestakuntzako eta eskolaz kanpoko jarduerak, bai eta horko ikastegiek elkarren artean dituztenak ere, koordinatzea; hori guztia zein bere eskumenen eremuaren baitan, ikastetxeetako gobernu organoek dituzten ahalmenak alde batera utzi gabe egingo da.

d) Lege eta indarrean dauden gainerako xedapenak betetzea eta betearaztea eta, horren eskumenen eremuan ongi aplikatzen diren zaintzea.

e) Hezkuntza-Esparruan lan egiten duten unibertsitateaz kanpoko langileen burua izatea.

f) Hezkuntza-Esparruko zerbitzu eta baliabide komunetako jardun ekonomikoa eta administrazio-jarduna koordinatzea eta kudeaketa egokia izan dadin zaintzea.

g) Sailaren aurrekontua ikusita, Hezkuntza-Esparruko aurrekontua proposatzea, betiere horren eskumenak aintzat hartuta eta Kudeatzailetzako Kontseiluaren bidezko aholkuaz. Hori guztia, Hezkuntza-Esparruko ikastetxeetako gobernu organoen zereginak baztertu gabe egingo da.

h) Hezkuntza-Esparruko aurrekontuarekin bat etorriz, gastuak baimentzea eta ordainketetarako aginduak ematea.

i) Hezkuntza-Esparruko garbiketa, garraio, zaintza eta jangelako zerbitzuak eta horien antzerakoak eta euren kontratuak gauzatzen diren ikuskatzea.

j) Hezkuntza-Esparruan hainbat zereginetan aritzeko kolaboratzaile eta bekadunen plazetarako deialdia egitea, betiere Esparruak dituen beharrak eta aurrekontua aintzat hartuta. Kudeatzailetzako Kontseiluak egingo duen balorazioari jarraiki deialdia ebaztea.

k) Euskal Herriko Unibertsitatean eta Eibarko Hezkuntza-Esparruan, bietan, eragina sortzen duten zerbitzu orokorren erabilera bateratua, UPV / EHUko organoekin koordinatzea.

l) Arauen bidez organo horri esleitzen zaizkion gainerako betekizunak.

*12. artikulua.–* Kudeatzailetzak Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Atal bat izango du.

Complejo Educativo y el/la Jefe/a de la Unidad de Gestión de Administración y Servicios.

*Artículo 11.–* Corresponde al Gerente:

a) Representar oficialmente al Complejo Educativo.

b) Dirigir y coordinar los servicios, instalaciones y uso de los espacios, edificios y construcciones de utilización común del Complejo Educativo, con la asesoría del Consejo de Gerencia.

c) Coordinar las actividades formativas y extraescolares propias del Complejo Educativo y comunes a los diferentes centros del mismo, para una adecuada utilización de ámbitos comunes, sin perjuicio de las atribuciones de los órganos de gobierno de los diferentes centros en el ámbito de sus competencias.

d) Cumplir y hacer cumplir las leyes y demás disposiciones vigentes y velar por su correcta aplicación en el ámbito de su competencia.

e) Ejercer la jefatura del personal no docente asignado al Complejo Educativo.

f) Coordinar la actividad económica y administrativa de los servicios y recursos comunes del Complejo Educativo velando por su adecuada gestión.

g) Proponer, dentro de las disponibilidades presupuestarias del Departamento, el presupuesto general del Complejo Educativo en el ámbito de su competencia, con el asesoramiento preceptivo del Consejo de Gerencia y sin perjuicio de las atribuciones propias de los órganos de gobierno de los centros del Complejo Educativo.

h) Autorizar los gastos y ordenar los pagos de acuerdo con el presupuesto del Complejo Educativo.

i) Supervisar la ejecución de los contratos y prestación de servicios de limpieza, transporte, vigilancia, comedor y cualquier otro análogo del Complejo Educativo.

j) Realizar la convocatoria de plazas de colaboradores/as becarios/as en el Complejo Educativo, para desempeñar diferentes labores en el mismo, de acuerdo con las necesidades del Complejo y las disponibilidades presupuestarias del mismo, y resolverla de acuerdo con la valoración realizada por el Consejo de Gerencia.

k) Coordinar con los órganos correspondientes de la UPV/EHU, la utilización conjunta de los servicios generales que afecten simultáneamente al Complejo Educativo de Eibar y a la Universidad del País Vasco.

l) Las demás funciones que se le atribuyan reglamentariamente.

*Artículo 12.–* La Gerencia dispondrá de una Unidad de Gestión de Administración y Servicios.

*13. artikulua.–* Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Ataleko burua, kudeatzailearen buruzagitzapean, Hezkuntza-Esparruko zerbitzu komunak kudeatzeko eta administratzeko arduraduna da.

*14. artikulua.–* Administrazioa eta Zerbitzuak Kudeatzeko Ataleko buruari honako hauek dagozkio:

a) Administrazio-lan eta lan ekonomiko orokorrak planifikatzea eta antolatzea eta kudeaketarako lehentasunak zehaztea.

b) Hezkuntza-Esparruko zerbitzu orokorrak planifikatzea eta antolatzea.

c) Hezkuntza-Esparruko aurrekontu orokorretarako aurreproiektua egitea, betiere Sailaren aurrekontua aintzat hartuta. Aurrekontua kontrolatzea eta horren jarraipena egitea.

d) Hezkuntza-Esparruko inbentarioa egitea eta eguneratua izatea. Inbentarioan Esparruko zerbitzu, instalakuntza eta eraikinetako gai inbentariagarriak sartuko dira.

e) Hezkuntza-Esparruko liburu eta artxibo orokorrak zaintzea.

f) Kudeaketa ekonomikoak sortzen duen kontabilitatea zaintzea.

g) Kudeatzailearen zuzendaritzapean eta horren eskumenen eremuan, Hezkuntza-Esparruko jardueren urteko txostena egitea.

h) Kudeatzaileak baimentzen dituen gastuak izapidetzea eta horien ordainketak egitea.

i) Kudeatzaileak eskuordetuz gero, Hezkuntza-Esparruan esleitutako eta horko ikastetxeetan atxiki gabeko irakaskuntzaz kanpoko langileen buru gisa jardutea.

j) Kudeatzaileak bere eskumenen eremuan eska ditzakeen betekizun eta ardurak, eta arauen bidez esleitzen zaizkionak.

HIRUGARREN KAPITULUA.
EIBARKO HEZKUNTZA-ESPARRUKO ZENTROETAKO GOBERNU ORGANOEI BURUZKOA.

*15. artikulua.–* 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetarako orokorrean ezarritako taldeko aginte-organoak eta lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu «Uni Eibar-Ermua» Bigarren Hezkuntzako Institutuak ere.

2.– Jorratzeko gaiak horrela eskatuz gero, «Uni Eibar-Ermua» Bigarren Hezkuntzako Institutuko zuzendariak Hezkuntza-Esparruko gobernu orokorreko organoei dei egin ahal izango die ikastetxeko ordezkaritza-organo gorenaren bilkuretan parte hartzeko; horiek hitz egiteko eskubidea izango dute, baina ez botorik emateko.

*16. artikulua.–* Eibarko Egoitza-Zentroak Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak zehaztuko dituen

*Artículo 13.–* El/La Jefe/a de la Unidad de Gestión de Administración y Servicios es el responsable, bajo la jefatura del Gerente, de la gestión de la administración y de los servicios comunes del Complejo Educativo.

*Artículo 14.–* Corresponde al Jefe/a de la Unidad de Gestión de Administración y Servicios:

a) Planificar y ordenar los trabajos administrativos y económicos generales y señalar las prioridades en la gestión.

b) Planificar y ordenar los trabajos propios de los servicios generales del Complejo Educativo.

c) Elaborar el anteproyecto de los presupuestos generales del Complejo Educativo dentro de las disponibilidades presupuestarias del Departamento, y realizar el seguimiento y control del mismo.

d) Realizar y mantener actualizado el inventario del Complejo Educativo que contendrá el material inventariable correspondiente a los servicios, instalaciones, edificios y construcciones del Complejo.

e) Custodiar los libros y los archivos generales del Complejo Educativo.

f) Cuidar de la contabilidad derivada de la gestión económica.

g) Elaborar, bajo la dirección del Gerente, la memoria anual de actividades del Complejo Educativo en el ámbito de su competencia.

h) Tramitar los gastos autorizados por el Gerente y efectuar los pagos correspondientes.

i) Ejercer, por delegación del Gerente, la jefatura del personal no docente asignado al Complejo Educativo que no esté adscrito a alguno de los centros del mismo.

j) Las funciones y responsabilidades que le pueda encomendar el Gerente en el ámbito de su competencia y las que se le atribuyan reglamentariamente.

CAPÍTULO TERCERO
DE LOS ÓRGANOS DE GOBIERNO DE LOS CENTROS DEL COMPLEJO EDUCATIVO DE EIBAR.

*Artículo 15.–* 1.– El IES Uni Eibar-Ermua tendrá los órganos de gobierno colegiados y unipersonales establecidos con carácter general para todos los centros docentes públicos no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Si el tema a tratar lo requiere, el Director/a del IES Uni Eibar-Ermua podrá convocar a las sesiones del Órgano Máximo de Representación del centro a los órganos de gobierno general del Complejo Educativo, que tendrán voz pero no tendrán voto en dichas sesiones.

*Artículo 16.–* El Centro Residencial de Eibar tendrá los órganos de gobierno unipersonales y colegiados

taldeko aginte-organoak eta lagun bakarreko aginte-organoak izango ditu.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Irailaren 15eko 299/1987 Dekretua indargabetu egiten da; izan ere, Dekretu horrek Irakaskuntza Integratuetako Eibarko Ikastegia berregituratu zuen, hainbat ikastegi publiko sortarazi zituen eta horiei administrazio-antolaera eman zien. Horrez gain, Dekretu honen aurka doazen maila bereko edo baxuagoko xedapen guztiak ere indargabetu zituen.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehengoa.–* Abenduaren 18ko 353/2001 Dekretua aldaraziko da; izan ere, Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoaren unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan, lan legepeko pertsonalarentzat eta Bigarren Hezkuntzako Irakasleriaren Kidegoko, Lanbide Heziketako Irakasleri Teknikoaren Kidegoko eta Erdi Mailako Ikasketetako Institutuetako Irakasleri Bereziaren Kidegoko funtzionarioentzat gordetako lanpostu-zerrenda, 2001-2002 ikasturtekoa, onartu zen. Aldaketa honakoa da:

– «Uni Eibar-Ermua BHI» ikastetxeko Lanpostuen Zerrendatik Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoko 5 plaza, «Jarduerak» espezialitatekoak, bereiziko dira; plazok derrigorrezkotasun datarik gabeko 1. hizkuntza eskakizuna daukate. Plaza horiek Eibarko Egoitza-Zentroko irakaskuntzako Lanpostuen Zerrendara pasatuko dira.

Plaza horien izena, hizkuntza-eskakizuna, derrigorrezkotasun data, funtzionarioen zein kidegotan atxiki diren, esleitu zaien berariazko osagarria eta plazok betetzeko sistema, Uni Eibar-Ermua BHI ikastetxeko Lanpostuen Zerrendatik bereiztu ziren lanpostuetarako zehaztu ziren horiexek izango dira, alegia, abenduaren 18ko 353/2001 Dekretuak ezarritakoak izango dira.

Horren ondorioz, «Uni Eibar-Ermua» B.H.I. eta Eibarko Egoitza-Zentroaren Lanpostu Zerrendak, Dekretu honen Eranskinak zehazten dituenak dira.

*Bigarrena.–* «Uni Eibar-Ermua BHI» ikastetxeko «Jarduerak» plazetan atxikitako irakasleak, berez, Eibarko Egoitza-Zentroko «Jarduerak» plazetan atxikiko dira. Atxikipen horrek ez die eragindakoei ezelako aldaketarik ekarriko zerbitzuan emandako denbora zenbatzeari dagokionez.

*Hirugarrena.–* Eibarko Egoitza-Zentroan destinoa duten irakasleek emandako zerbitzuak, irakasle horiek lehiaketa edo deialdietan parte hartzeko ondorioetarako, ikastetxe batean emandako zerbitzutzat hartuko dira.

que determine el Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Se deroga el Decreto 299/1987, de 15 de septiembre, por el que se reestructura el Centro de Enseñanzas Integradas de Eibar dando origen a la constitución y organización administrativa de diversos centros docentes públicos, así como cualquier otra disposición de igual o inferior rango que se oponga a lo dispuesto en este Decreto.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Se modifica el Decreto 353/2001, de 18 de diciembre, por el que se aprueba la relación de puestos de trabajo para el curso 2001-2002, reservados al personal laboral y a funcionarios pertenecientes al Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria, Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional y Cuerpo de Profesores Especiales de Institutos Técnicos de Enseñanzas Medias, en los centros docentes públicos de niveles no universitarios de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en los siguientes términos:

– Se desglosan de la Relación de Puestos de Trabajo del IES «Uni Eibar-Ermua» las 5 plazas del Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional, especialidad «Actividades», de Perfil Lingüístico 1, sin fecha de preceptividad, y se integran estas 5 plazas en la Relación de Puestos de Trabajo docentes del Centro Residencial de Eibar.

La denominación, el perfil lingüístico, la fecha de preceptividad, el cuerpo de funcionarios al que están adscritas, el complemento específico asignado y el sistema de provisión de estas plazas serán los mismos que los que tenían las plazas desglosadas de la Relación de Puestos de Trabajo del IES «Uni Eibar-Ermua», establecidos en el Decreto 353/2001, de 18 de diciembre.

Como consecuencia de lo anterior, las Relaciones de Puestos de Trabajo del IES Uni Eibar-Ermua y del Centro Residencial de Eibar son las que figuran en el Anexo de este Decreto.

*Segunda.–* Los profesores adscritos a las plazas de «Actividades» del IES «Uni Eibar-Ermua» quedan automáticamente adscritos a las plazas de «Actividades» del Centro Residencial de Eibar. Esta adscripción no supondrá para estos profesores variación alguna a los efectos de cómputo de tiempo de servicios.

*Tercera.–* Los servicios prestados por el profesorado destinado en el Centro Residencial de Eibar tendrán la consideración de servicios prestados en un centro docente, a efectos de la participación de estos profesores en cualquier Concurso o convocatoria.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.–* Egoitza-Zentroko gobernu organoak, euren betekizunak eta horiek hautatzeko prozedura Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emango duen aginduaz arautuko dira.

*Bigarrena.–* Egoitza-Zentroan lan egiten duten irakaskuntzako langileen betekizunak, eta irakasle gisa dituzten betebeharrak euren lantokiaren ezaugarri berezietarako egokitzeko arauak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emango duen aginduaren bidez arautuko dira.

*Hirugarrena.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari baimena emango zaio dekretu hau aplikatzeko eta garatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

*Laugarrena.–* Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko uztailaren 2an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.–* Los Órganos de Gobierno del Centro Residencial, sus funciones y el procedimiento de elección de los mismos se regularán por Orden de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

*Segunda.–* Las funciones del personal docente que presta sus servicios en el Centro Residencial, así como las normas que permitan adecuar sus obligaciones como docentes a las características especiales del centro en el que desarrollan su trabajo, se regularán asimismo por Orden de la Consejera de Educación, Universidades e Investigación.

*Tercera.–* Se autoriza a la Consejera de Educación, Universidades e Investigación para dictar cuantas otras disposiciones sean necesarias para la aplicación y desarrollo del presente Decreto.

*Cuarta.–* Este Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 2 de julio de 2002

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Educación, Universidades e Investigación,
M.ª ANGELES IZTUETA AZKUE.

ERANSKINA / *ANEXO*

LANPOSTUEN ZERRENDA / *RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO*
ERABILITAKO SIGLEN ESANAHIA / *SIGNIFICADO DE LAS SIGLAS UTILIZADAS:*

B.H.I.K. : Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoa
*C.P.E.S. : Cuerpo de Profesores de Enseñanza Secundaria*

L.H.I.T.K.: Lanbide Hezkuntzako Irakasle Teknikoen Kidegoa
*C.P.T.F.P.: Cuerpo de Profesores Técnicos de Formación Profesional*

LAN-LEGEP.: Lan-legepeko langilegoa
*PERS. LAB.: Personal Laboral*

I.E.I.T.I.K.: Irakaskuntza Ertaineko Institutu Teknikoetako Irakasleen Kidegoa
*C.P.I.T.E.M.: Cuerpo de Profesores de Institutos Técnicos de Enseñanza Media*

1DG : 1. Hizkuntza eskakizuna (Datarik Gabe)
*1SF : Perfil Lingüístico 1 (Sin Fecha de preceptividad)*

1B : 1. Hizkuntza eskakizuna (Betea)
*1V : Perfil Lingüístico 1 (Vencido)*

2B : 2. Hizkuntza eskakizuna (Betea)
*2V : Perfil Lingüístico 2 (Vencido)*

013173

EIBARKO EGOITZA-ZENTROA

*CENTRO RESIDENCIAL DE EIBAR*

OTAOLA 29

20600 EIBAR

| | B.H.I.K. *C.P.E.S.* | | | L.H.I.T.K. *C.P.T.F.P.* | | | LAN-LEGE *PERS. LAB.* | | | P.I.E.I.T.I.K. *C.P.I.T.E.M.* | | | GUZTIRA *TOTAL* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | GUZ. *TOT.* |
| Ekintzak / *Actividades* | | | | *5* | | | | | | | | | *5* | | | *5* |
| GUZTIRA / *TOTAL* | | | | *5* | | | | | | | | | *5* | | | *5* |

012053

IES UNI EIBAR-ERMUA BHI

OTAOLA 29

20600 EIBAR

| | B.H.I.K. *C.P.E.S.* | | | L.H.I.T.K. *C.P.T.F.P.* | | | LAN-LEGE *PERS. LAB.* | | | P.I.E.I.T.I.K. *C.P.I.T.E.M.* | | | GUZTIRA *TOTAL* | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | 1DG *1SF* | 1B *1V* | 2B *2V* | GUZ. *TOT.* |
| Filosofia / *Filosofía* | 3 | | 1 | | | | | | | | | | 3 | | 1 | 4 |
| Latina / *Latín* | 2 | | | | | | | | | | | | 2 | | | 2 |
| Gaztelera eta Literatura *Lengua Castellana* | 3 | | | | | | | | | | | | 3 | | | 3 |
| Geografia eta Historia *Geografía e Historia* | 3 | | | | | | | | | | | | 3 | | | 3 |
| Matematikak / *Matemáticas* | 4 | | | | | | | | | | | | 4 | | | 4 |
| Fisika eta Kimika *Física y Química* | 3 | | 1 | | | | | | | | | | 3 | | 1 | 4 |
| Biologia eta Geologia *Biología y Geología* | 2 | | 1 | | | | | | | | | | 2 | | 1 | 3 |
| Marrazketa / *Dibujo* | 1 | | | | | | | | | | | | 1 | | | 1 |
| Ingelesa / *Inglés* | 4 | | | | | | | | | | | | 4 | | | 4 |
| Gorputz Heziketa *Educación Física* | 4 | | | | | | | | | | | | 4 | | | 4 |
| Sikologia eta Pedagogia *Psicología y Pedagogía* | 1 | | 1 | | | | | | | | | | 1 | | 1 | 2 |
| Teknologia / *Tecnología* | 1 | | | | | | | | | | | | 1 | | | 1 |
| Ekonomia / *Economía* | 1 | | 1 | | | | | | | | | | 1 | | 1 | 2 |
| Euskera eta Euskal Literat. *Lengua y Literat. Vasca* | | | 3 | | | | | | | | | | | | 3 | 3 |
| Informatika / *Informática* | 2 | | 1 | | | | | | | | | | 2 | | 1 | 3 |
| Enpresen Administrazioa *Administración Empresas* | 6 | | | | | | | | | | | | 6 | | | 6 |
| Lan-Prestak. eta Orient. *Form. y Orientac. Laboral* | 2 | | | | | | | | | | | | 2 | | | 2 |
| Merk. Antolak. eta Kudeak. *Org. y Gestión Comerc.* | 2 | | | | | | | | | | | | 2 | | | 2 |
| Sistema Elektronikoak *Sistemas Electrónicos* | 2 | | | | | | | | | | | | 2 | | | 2 |
| Aukerakoak / *Opcionales* | 1 | | | | | | | | | | | | 1 | | | 1 |
| Ekipo Elektronikoak *Equipos Electrónicos* | | | | 2 | | | | | | | | | 2 | | | 2 |
| Merkataritza Prozesuak *Procesos Comerciales* | | | | 3 | | | | | | | | | 3 | | | 3 |
| Admin. Kudeak. Prozesuak *Proces. Ges. Administ.* | | | | 4 | | | | | | | | | 4 | | | 4 |
| Inform.-Sistemak eta Aplik. *Sist. y Aplic. Informát.* | | | | 1 | | | | | | | | | 1 | | | 1 |
| GUZTIRA / *TOTAL* | 47 | | 9 | 10 | | | | | | | | | 57 | | 9 | 66 |